



20/2026 Irizpena, ekainaren 1ekoa: «Añorbeko udaletxearen hobekuntza funtzionala eta irisgarritasunekoa» egiteko obra-kontratua suntsiaraztea.

Eskatzailea: Añorbeko Udala

Txostengilea: Hugo López López

Interesa: Kontratua suntsiaraztea kontratistaren erruzko ez-betetzeagatik; obrak gauzatzeko epearen funtsezko baldintza; berandutzeagatik zigorrak eta zenbatekoak atxikitzea

Irizpena honako espediente honi buruzkoa da: «Añorbeko udaletxearen hobekuntza funtzionala eta irisgarritasunekoa» obra-kontratua suntsiarazteko espediente. Hobekuntza hori jasota zegoen 2023-2025 epealdirako Tokiko Inbertsioen Planean (tokiko programazioari buruzko «udal- eta kontzeju-zuzkidurak» atalaren barruan), Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren 2024ko otsaileko ebazpenaren bidez.

Udaletxearen hobekuntza funtzionalerako eta irisgarritasunerako obra-kontratua enpresa kontratistari esleitu zitzaion. Hala, kontratuaren klausuletan jaso zen obrak gauzatzeko epea sei hilabetekoa zela, zuinketa-akta formalizatzen zen egunetik aurrera, hau da, 2025eko maiatzetik aurrera. Data hori iritsita obra osorik gauzatu ez zela ikusirik, kontratua ez suntsiaraztea eta isilbidez luzatzea erabaki zuen Udalak. 2025eko irailetik aurrera, obrak atzeratu ez ezik, eten egin zituzten gauzatzeko lanak. Ondorioz, Udalak, 2025eko urrian, inbertsioa justifikatzeko epea luzatzeko eskatu zuen. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak eskaera horri erantzun zion, eta inbertsioa justifikatzeko epea 2026ko ekitaldira luzatzea erabaki zuen. Halaber, ohartarazi zuen inbertsioaren justifikazioa urte horretan egin behar zela. 2025eko azaroan, zuzendaritza fakultatiboak seigarren obra-ziurtagiria idatzi zuen, baina kontratistak ez zuen onartu, eta, urte horretako abenduan, beste proposamen bat egin zuen. Hilabete horretan bertan, kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazteko proposamen bat aurkeztu zuen kontratistak. 2026ko otsailean, Añorbeko Udalak bi erabaki hartu zituen: batetik, ez kontuan hartzea kontratistak obra-kontratua bi aldeen adostasunez suntsiarazteko proposatutako baldintzak; eta, bestetik, enpresari errekeritzea, 7 egun naturaleko epean, obrei berrekiteko eta, obrak berrabiarazi eta hilabeteko epean, amaitzeko. Kontratistak epe hori bete ez zuenez, 2026ko martxoan, Udalak abian jarri zuen espediente administratibo bat kontratua suntsiarazteko, kontratistak obra-kontratua erruz ez betetzeagatik. Kontratistak aurka egin zion bere erruduntasunean oinarrituriko suntsiarazpenari eta berandutzeagatik zigorrak ezartzeari.

2026ko apirilean, Udalak espedientean jasotako suntsiarazpen-proposamena egin zuen, ulerturik bidezkoa zela kontratua suntsiaraztea, kontratistaren erruzko ez-betetzeatik.

Kontratua suntsiaraztea bidezko den ala ez erabakitzeko, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (KPFL) aplikatu behar da. Foru Lege horretan, kontratuak suntsiarazteko arrazoiak eta suntsiarazpenaren ondorioak jasotzen dira (160. eta 161. artikulua), bai eta obra-kontratuak adjudikatzeko klausulak ere.

Hain zuzen, hauek dira kontratua suntsiarazteko proposamenaren arrazoi nagusiak: hasierako atzerapena obrak gauzatzean, gauzatzen hasi ondoren obrak geldiaraztea, eta, azkenik, obrak bertan behera uztea. Espedientean jasotako dokumentazioan oinarrituz, Kontseiluak ondorioztatu du –kontratistak esandakoaren aurka–, ez dela kontuan hartu behar inbertsioa justifikatzeko epea 2026ko azarora arte luzatu izana. Izan ere, luzapen hori Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren egintza bat da, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanekin lotutakoa, eta ez da hartu behar Udalaren eta kontratistaren arteko kontratu-epearen luzapen gisa Beraz, zalantzarik gabe, ez da bete obrak amaitzeko ezarritako epea, 2026ko otsailean hilabeteko luzapena eman ondoren.

Era berean, Kontseiluak adierazi du Udalak kontratistari beste obra-enkargu bat esleitu arren, horrek ez duela justifikatzen –kontratistak alegatutakoaren aurka– epea ez betetzea. Izan ere, bi lan desberdin dira, bi ebazpen desberdinen bidez eta prozedura desberdinen bidez adjudikatuak. Beraz, bigarren obra esleitzeak ez du aldatzen lehenengo obrarako zehazturiko gauzatze-epea. Halaber, Kontseiluak adierazi du ez direla identifikatu, kontratistaren arabera, zuzendaritza fakultatiboarekin izan dituzten desadostasunak (desadostasun horiek alegatu ditu atzerapena justifikatzeko). Izatez, kontratistak adierazitakoa ez dator bat, inola ere, espedientean jasotako dokumentazioarekin. Hala, dokumentazio horren arabera, kontratistak edo azpikontratak egindako akatsen ondorioz sortu ziren desadostasunak obren gauzatzearekin lotutako zenbait alderdiren inguruan. Halaber, ez da egiaztatu Udalari ordaindu ez izana egotz dakiokeenik, eta ordaindu gabeko kopurua ere ez da argi zehazten. Badirudi arrazoi hauek daudela ordaindu gabeko zenbatekoen atzean: batetik, kontratistak beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez izana eta, bestetik, seigarren obra-ziurtagiriari buruzko desadostasunak, zeinak enpresak berak aitortutako gauzatze-akatsekin loturik baitaude. Ondorioz, ordainketa atzeratu izan balitz ere, horrek ez luke justifikatuko kontratistak obrak atzeratzea edo bertan behera uztea. Egitate bat da –zeina ez baitu zalantzan jarri merkataritza-sozietateak–, 2025eko irailetik aurrera, obra geldiarazita geratu zela, eta, halaber, 2025eko azaroan, bertan behera utzi

zela obra eta ez zirela bete Udalak obra jarraitzeko eta amaitzeko eskatuz egindako errekerimenduak.

Beraz, Kontseiluak ondorioztatu du, batetik, kontratua ez dela bete, obra ez baita egin ezarritako epean –ezta epea luzatu arren ere–, eta, bestetik, ez-betetze hori kontratistari egotz dakiokela.

Erruzko ez-betetzeagatik kontratua suntsiaraztea bidezkoa izan dadin, ez-betetze horrek funtsezko izaera izan behar du. Argi dago kontratua gauzatzea dela obra-kontratu baten adjudikaziodunaren kontratuzko betebeharr nagusia. Funtsezko betebeharra da hori, ezbairik gabe, eta enpresa kontratistak ez du bete. Hala, hasieran atzerapen handiak izan zituen, eta, ondoren, obra geldiaraztea eta, azkenik, bertan behera uztea erabaki zuen. Kasu horretan, epeak ere funtsezko izaera zuen. Izan ere, administrazio-klausulen agirian, berariaz jasotzen da kontratua suntsiarazi egingen dela, baldin eta atzeratu egiten bada, enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik. Halaber, kontratua adjudikatze irizpideetan, jasotzen zen 20 puntu emanen zizkiotela egutegi kronologikoari eta obraren garapenari buruzko plangintzari. Denborak garrantzi berezia du; izan ere, Udala behartuta dago obrak garaiz eta zehazturiko baldintzetan amaitzera. Baldintza horiek bete ezean, galdu egingen du, 8/2022 Foru Legean araututako Toki Inbertsioen Planaren arabera, obra finantzatzeko aitortua duen ekarpen ekonomikoa. Aurrerago adierazitako moduan, luzatu egin zuten ekarpen hori egiteko epea, hain zuzen, kontratistak ez zuelako bete hasieran jarritako epea.

Hortaz, bidezkoa da kontratua suntsiaraztea kontratistaren erruzko ez-betetzeagatik.

Kalte-galeren ordainari dagokionez, suntsiarazteko proposamenean ez da zehazten Udalak kalte-ordain horren gainean duen ahalmena (KPFLren 161. artikulua); beraz, ez dagokio Kontseiluari iritzirik ematea horren bidez kotasunari buruz.

Udalak ebazpenean aplikatu nahi dituen atzerapenagatiko zigorrei dagokienez, Kontseiluak uste du ez direla bidezkoak; izan ere, hertsapen-izaera dute, alegia, kontratua gauzatuko dela ziurtatzea dute helburu, eta, beraz, ez dira kalte-ordainak emateko. KPFLren arabera, bidegabekoa da aldi berean hastera, batetik, atzerapenagatik zigorrak ezartzeko espediente bat eta, bestetik, kontratua suntsiarazteko espediente bat. Izan ere, zigor horiek helburu hertsatzailea dute, eta, beraz, zigor horiek jartzeak ez du inolako xederik, behin Administrazioak harreman juridikoa amaitzea erabaki ondoren. Hortaz, ez da bidezkoa bi neurriak metatzea. Ondorioz, ez da bidezkoa, halaber, seigarren ziurtagiriko zenbatekoak atxikitzea atzerapenagatik sortutako zigorrak ordaintzeko, kontzeptu hori ezin baita

erreklamatu. Horrek guztiak ez du esan nahi kontratistak Udalari eragindako kalte-galerak ordaindu behar ez dizkionik. Kalte-galera horiek kontratua likidatzeko espedientean zehaztu beharko dira.